

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 464/2019 Erabakia, uztailaren 23koa. Onespena ematea Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko Administrazio Kontseiluko kideak kendu eta izendatzeari

Foru Gobernu Kontseiluari dagokio Arabako Foru Aldundiak erakunde eta instituzio publiko nahiz pribatuetan dituen ordezkariak izendatzea, abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak, Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Lege Araubideari buruzkoak, bere 8. artikuluan, 9. eta 10. idatz zatietan aurreikusikoaren arabera.

Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen egitura eta funtzionamenduaren Arautegia onartu zituen 25/2012 Foru Dekretuak, apirilaren 3ko Diputatu Kontseiluarenak, 4.2 artikulua xedatutakoaren arabera Administrazio Kontseilua Diputatuen Kontseilu Akordio bidez izendatuta izango diren bost kidez gutxienez eta zazpi gehienez osatuta egon beharko da, Administrazio Kontseiluak bost kide edukiko ditu gutxienez eta zazpi gehienez; Foru Gobernu Kontseiluak izendatuko ditu erabaki bidez, ondoko biak izan ezik: Gizarte Zerbitzuen Saileko diputatua, Kontseiluko burua izango dena, eta Gizarte Zerbitzuen zuzendaria.

Horregatik, Diputatu nagusiaren proposamenez, eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran aztertu ondoren, hau

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa: Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko (foru administrazioak partaidetutako Erakundearen Erregistroko 72 agindu zenbakia) Administrazio Kontseilukide izendatzea M^a Pilar García de Salazar Olano, diputatu nagusiaren lehenengo diputatu nagusiordea eta Ekonomia Garapenaren, Berrikuntzaren eta Demografia Erronkaren Saileko foru diputatua, Cristina Gonzalez Calvar, diputatu nagusiaren bigarren diputatu nagusiordea eta Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatua, eta Itziar Gonzalo de Zuazo, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatua.

Bigarrena: Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko (foru administrazioak partaidetutako Erakundearen Erregistroko 72 agindu zenbakia) Administrazio Kontseilukide Eduardo Aguinaco López de Suso, Nekazaritza Saileko foru diputatua, Igone Martínez de Luna Unanue eta Jose Luis Cimiano Ruiz kargutik kentzea.

Hirugarrena: Erabaki honek onartzen den egunetik aurrera izango du indarra, ALHAOn argitaratzen den eguna edozein dela ere.

Gasteiz, 2019ko uztailaren 23a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZALEZ VICENTE

Diputatu Nagusiaren Kabinetearen jarduneko zuzendaria

ELENA FERREIRA SEBASTIÁN